

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
GORPUTZ HEZKUNTZAREN DIDAKTIKA	141243	25-26
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADOA	3. MAILA	2. SEHILABET EA
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
BETEBEHARREKOA	6	euskaraz
Irakaslea(k)		
YOLANDA SANTEODORO EGIA		

Justifikazioa
Gorputz hezkuntzaren didaktikak hezkuntza sistemaren errealitatea, bere osotasunean, ulertzeko tresnak errazten ditu. Horrela betebeharreko den arlo honek errealitate horri eskaintzen dionaz ohartzeko, ikasleak gorputz hezkuntzak azaleratzen dituen hezkuntza balioak identifikatzeko baliogarria diren teknikak eta, baita ere, teoriak erabiltzen eta ezagutuko ditu. Ezagutza honek ikasleari, proposamen praktikoak justifikatzeko eta haien hezkuntza ondorioak argi identifikatzeko baliogarria egingo zaiola. Zentzu zabalago batean, ikaslea gorputz hezkuntzak haurren heziketan duena garrantziaz ohartuko da, adin eta ezaugarri sozio afektiboak kontuan hartuz, proposatzen den jarduera motor bakoitzak zein adimen eta afektibitatea sustatzen duen baieztatzerakoan. Ikasgai honek gorputz hezkuntza praktika motorraren didaktika antolatzerakoan jarraitzen den pedagogiaz jabetzeko aukera ematen du.
Aurrebaldintzak
Inolako betekizunik ez

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

K.O. 1 PENTSAMENDU SISTEMIKOA

- K.O.1.1 Errealitatearen osagaiak buruz antolatu eta uztartzea eta errealitate hori eredu holistikoen (globalen) bitartez azaltzea

Berriarazko gaitasunak

M.E.1.7. Gizarte justu eta berdintasunezkoa nahita sustatzera zuzendutako irakaskuntza estrategiak eta jarduera motorrak diseinatzea, honako helburu hauek bilatuz: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta kultura eta errealitate desberdinetako pertsonen arteko berdintasuna.

M.E.2.6. Gorputz hezkuntzako saio praktikoetan erabiltzeko baliabide didaktikoak diseinatu, denbora eta espazioa era eraginkorrean gestionatuz.

M.E.3.1. Jokabide motorrak jasotzeko eta erregistratzeko prozedurak eta tresnak diseinatzea.

M.E.7.4. Praktiken behaketetan oinarriturik, lortutako datuen interpretazioek irakaskuntza hobetzeko erabili



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian



ODS 3. Osasuna eta ongizatea.

Osasuna eta ongizatea bere dimentsio ezberdinetatik irakasleak bere lanetik sustatu behar dituen beharrezko baldintza bihurtu dira. Gorputz hezkuntzatik lantzen den alfabetatze fisikoak helduen bizitzara transferigarriak diren osasuna eta ongizatea sustatzeko eta mantentzeko proposamenak antolatzen ikasten du lehen hezkuntzako irakasleak.



ODS 5 Genero-berdintasuna

Genero eraikuntza soziala eta kulturala den neurrian, irakaslea praktika motorretan eta kirolean estereotipoen eraginaz jakitun egon behar da. Praktika horien barnean islatzen den generoa ezagutuz, irakasleak generoa dela eta desberdintasunak saihesteko proposamenak egiteko gai izan behar da, genero berdintasuna helburu beti.

Edukiak

1. Praxiologia motorra: Gorputz hezkuntzako ikerketa gaia

Akzio motorra eta jokabide motorra
Sistema praxiologikoak
Jarduera motorren barne egituren analisia

2. Programazioa eta unitate didaktikoak

Baliabide didaktikoak eta estrategia metodologikoak gorputz hezkuntzan
Irakaskerak gorputz hezkuntzan
Konpetentziekiko unitate didaktikoen diseinua

3. Behaketa gorputz hezkuntzan

Erregistro orrialdea diseinatzeko estrategiak
Datuen tratamendua eta interpretazioa

4. Ebaluazioa gorputz hezkuntzan

Ebaluazio motak eta bere abantailak eta desabantailak
Ebaluazio programarako estrategiak: zer ebaluatu, nola ebaluatu, noiz ebaluatu.
Ebaluaziorako tresnen diseinua

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Testuinguru esperientziala gaiarekiko esperientziak eta aurre iritziak bateratuta jarritz garatuko da (%5,4). Behaketa hausnarketarako testu eta artikuluen irakurketa eta analisiaren bitartez garatuko da. Baita ere, irakaslearen esposizioaren ondorengo eztabaidaren bitartez (%27,4). Kontzeptualizazioa bideoaren ikusketa, artikuluen irakurketa eta irakaslearen eta ikasleen esposizioen bitartez garatuko da (%16,5). Esperimentazio aktiboa ikasleek eta irakasleak diseinatutako jarduera motorren proposamenen eta haien praktikaren bitartez garatuko da (%18,7). Ebaluazioa, ikasleen auto ebaluazioaren bitartez eta proiektuen balorazioak, idatzizko azterketa eta aurkezpen praktikoekin garatuko da (%32).

Ebaluazioa

- Lanaren prozesua %15
- Galdera eta erantzun- multzoa (karpeta) %5 (banaka)
- Jokabidearen behaketa eta Ikerketaren esposizioa %20 (taldeka, power point))
- Ikasgelan parte hartzeko proposamena %25 (taldeka)
- azterketa pertsonala % 25 (banaka eta taldeka)
- Koaderno %10 (banaka)

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea. Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua araberaren arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

- ANGUERA, M^a T.(1999). Observación en deporte y conducta cinésico-motriz: aplicaciones. Barcelona: Universitat de Barcelona
- BATZUK (2003): Gorputz hezkuntzaren oinarriak Lehen Hezkuntzarako. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- BISSONNETTE, R. (2000). Tareas de evaluación en educación física en enseñanza primaria. Barcelona. Paidotribo.
- ETNIKER EUSKALERRIA (1991): Juegos infantiles en Vasconia. Eusko Jaurlaritza.
- Euskal curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena. (2004). Sarrera Orokorra (9-42 or.). Ikastolen konfederazioa.
- EUSKO JAURLARITZA. (2010) Lehen hezkuntzarako gorputz hezkuntzako curriculum. Vitoria-Gasteiz
- LAGARDERA, F. Y LAVEGA, P. (2003): Introducción a la praxiología motriz. Barcelona. Inde
- LAGARDERA, F. Y LAVEGA, P. (2004): La ciencia de la acción motriz. Lleida. Edicions de la Universitat de Lleida..
- LAVEGA BURGUÉS, P. (2000): Juegos y deportes populares tradicionales. Barcelona. Inde.
- Lehen Hezkuntzarako gorputz hezkuntzako curriculum. 175/2007 dekretuaren IV. Eranskina, Gorputz Hezkuntza curriculum
- ONOFRE, C. (2011). Las competencias básicas desde la educación física. Zaragoza: Inde.
- PARLEBAS, Pierre. (1988). Elementos de sociología del deporte. Málaga : Unisport.
- PIERRE PARLEBAS. (2001): Juegos, deporte y sociedad. LEXICO DE PRAXIOLOGIA MOTRIZ. Barcelona. Paidotribo.
- SALES BLASCO, J. (1998): *La evaluación de la educación física en primaria*. Barcelona. Inde
- URDANGARIN, C. eta ETXEBESTE, J. (Koor.) (2005). Euskal jokoa eta jolasa: Transmittiendo una herencia vasca a partir del juego.Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza argitalpen zerbitzu nagusia.